# Jakinarazpena / Comunicación

## Nafarroa eta Baxe Nafarroa-Xiberua

---

## Nafarroa y Baxe Nafarroa-Xiberua

BATZAR NAGUSIA
OTSAILAK 13-14
BALUARTE, IRUÑA 2016

guztiok bat

# NAFARROAk eta BAXE NAFARROA-XIBERUAk

## AURKEZTUTAKO

# JAKINARAZPENA

# VII. BATZAR NAGUSIRA JAKINARAZPENA

## ALTSASU, ARANTZA, AURITZ-BURGUETE, BAZTAN, EGUESIBAR, ETXARRI-ARANATZ, IRUÑA, LIZARRA, TAFALLA, UHARTE ETA BAXE NAFARROA-XIBERUAKO URI BATZARREK AURKEZTUTA

Nafarroako EAJ-ren Uri Buru Batzarrak eta Iparraldeko EAJ-ren Behe Nafarroa-Xiberuako Herri Biltzarra, batzen gaituzten lotura historiko eta geografikoak direla medio, eta bilera eta jakinarazpen batzuen ostean, elkarlan aldi bati hasiera ematea erabaki dugu bientzat garrantzitsuak diren eremuetan gure herriko biztanleen alde jarduteko.

### TESTUINGURU HISTORIKOA

Bizilagunak gara, geografikoki oso hurbilak, baina mendeetako banaketa politikoa eta bai madrildar bai paristar zentralismoek bitan zatitu gaituzte. Batzuei iparraldera begiratzera behartu gaituzte, besteei hegoaldera, banatu egin gaituzte eta gure artean atzerritar bihurtu izan nahi gaituzte.

Behe Nafarroa eta Xiberua, Lapurdi eta hegoaldeko lau herrialdeekin batera gure Aberria osatzen dute, euskaldunen aberria. Jadanik XI. mendean, Iruñako Erresumak mugak gainditzen zituen eta hirurehun urte baino gehiagotan, bortuz bestaldeko lurrak, euskal lurrak edo Behe Nafarroa bezala ezagutuak, Nafarroako Erresumaren barruan integratuta zeuden.

Behe Nafarroa Nafarroako Erresumaren barruan zegoen gaur egungo Nafarroako foru Erkidegoarekin batera (Nafarroa Garaia) 1512 urterarte, gure erresuma gaztelar osteak konkistatu zuten data, eta gure bizitza nazionalean inflexio puntu bat suposatu zuen data, eta ordurarte elkarrekin Estatu bat, Nafarroako Erresuma, osatu zuten bi herrialderen banaketaren hasiera izan zen. Eta Nafarroa Garaia berreskuratzeko beste bi saiekera egon ziren arren, 1516 eta 1521 urteetan, emaitzak alferrikakoak izan ziren, nahiz eta 1521eko hasiera arrakastatsua izan, azkenean Noaingo gudaren porrota ekarri bait zuen.

Behe Nafarroak konkista honi itzulia eman zion (Carlos enperadoreak bertan behera utzi zituenean), eta erakunde eta lege propioekin jarraitu zuen Albret Etxearen domeinuen ondorio bezala, gero Frantziar Erresumari elkartuz bere erregea, Nafarroako Enrike III.a , Borboi Etxeko lehena, tronuratu zenean. Horrela, errege frantzesak beren burua “Frantzia eta Nafarroako Errege” izendatu zuten, eta beraien armarria lis lorea eta kateak osatzen zuten. 1620. urtean, erregeak nafarroako erakundeen botereak murriztu zituen, bere autonomia mantenduz (horrela, Frantziako Luis XVI-k Frantziako Estatu Generalak deitu zituenean, Nafarroak ez zituen diputatuak formalki bidali, erregea bera baizik, modu independientean eta beraien Irain Koaderno propioarekin). Hala eta guztiz, nahiz eta mende horretan beraien eskubideak aldarrikatzen zituzten behenafartarrak egon, Koroaren barruan zeukaten estatus ezberdindua legez kontra amaitu zen 1789ko Frantziar Iraultzarekin.

HELBURU AMANKOMUNA: MUGAZ BESTALDEKO ELKARLANA

Elkarlanean aritzeko helburua Nafarroako ikuspegi orokorra indartzea da (Behe eta Garai Nafarroa), urteetan bata besteari bizkarra emanez bizi izan diren bi herrialde izan bait gara, kontutan izan gabe batzen gaituen errealitate historiko bat dagoela, gure Erresuma, eta batera(elkarlanean), beste Euskal Herriko herrialdeekin lan egin behar dugula.

Arrazoi guzti hauek medio, eta kontutan izanik Nafarroako Foru Erkidegoan zabaldu den egoera politiko berria, bere erakundeetako aldaketarekin, hasiera ematen diogu bi aldeak erlazio eta elkarlan etapa berri honi, gure loturak indartuz, eta gure alderdikideen laguntzaz elkarrekin lanean aritzeko konpromezua hartzen dugularik gure aberriarentzako ezinbesteko deritzogun eremuetan, ekonomikoa, politikoa eta soziala adibide moduan.

Elkarlanean garatuko dugun lanaldi berri hau gure Uri Batzarrak indartzeko probestuko dugu, elkar lagundu eta hobeto ezagutzeko, eta gure afiliazioa EAJ-PNV eta Nafarroaren(Garai eta Behe) alde lanean mogitzeko. Era berean, gure herriko, Euskal Herriko erakundeak, alderdi politikoak, talde ekonomikoak gure ekimenetara ekartzen saiatuko gara. Gehiago elkar ezagutu, gehiago elkar lanean aritu, estekak sortu eta proiektu amankomunak eratzea nazioa egitea da, Nafarroa egitea eta Euzkadi egitea.

Gure herritar olerkari eta bertsolari ospetsu eta maitea, Xalbador, oso ondo azaltzen eta irudiztatzen du Nafarroa Nafarroari esquíen zizkion bertsoetan, berretsiz bertso horietan ez dagüela Nafarroa Garai edo Behe Nafarrorik, Nafarroa bakarra bait da.

*« Goizean jeiki ohetik eta non nagon eginik galde,*

*Diot : « Aurrean Baztan daukazu, gibelean Erro alde,*

*Ezkerretarat Eugi herria, eskuin alderat Luzaide ;*

*Zure guziak Naparroaren hegalen azpian daude ».*

*Ene amatxi zendu maitea Auritzberriko izanik,*

*Napartarraren odol kartsua zainetan senditzen dut nik ;*

*Eta artzaintzan Sorogain mendi zoragarrirat iganik,*

*Norbaitek « Atzar hadi » diola entzuten dut urrundanik.*

*Ene sortzeko agerietan ni naiz baxenabartarra,*

*titulu horrek lehen hitzetan galtzen du bere indarra ;*

*ni beheretar zendako deitu, nerez banaiz orotarra ?*

*Goi eta beherik ez da enetzat, Naparro bat da bakarra. »*

*NAFARROAko EAJren 10 URI BATZARRAK* *BEHE NAFARROA-ZUBEROAko BATZARRAK*

# COMUNICACIÓN

VII ASAMBLEA GENERAL

BATASUNA ETA INDARRA –IRUÑA 2016

COMUNICACIÓN A LA VII ASAMBLEA GENERAL

DE LAS JUNTAS MUNICIPALES DE ALTSASU, ARANTZA, AURITZ-BURGUETE, BAZTAN, EGUESIBAR, ETXARRI-ARANATZ, IRUÑA, LIZARRA, TAFALLA, UHARTE Y BAXE NAFARROA-XIBERUA

Las organizaciones municipales de EAJ-Nafarroa y el Herri Biltzar de Baxe Nafarroa-Xiberua de EAJ Iparralde, reconociendo los lazos históricos y geográficos que nos unen y tras varios encuentros y comunicaciones hemos acordado emprender una etapa de colaboración y trabajo conjunto en aquellos sectores de común importancia en favor de los ciudadanos y ciudadanas de nuestro país.

CONTEXTO HISTÓRICO

Somos vecinos, muy cercanos geográficamente, pero varios siglos de forzada separación política y centralismos parisino y madrileño nos ha partido en dos. Nos han obligado a mirar unos al norte y otros al sur, nos han separado y han pretendido convertirnos en extranjeros.

Nafarroa Beherea y Xiberua junto con Lapurdi y los otros cuatro territorios de hegoalde conforman nuestra patria, la patria de los vascos. Ya en el siglo XI el reino de Pamplona traspasaba la frontera de los Pirineos y durante más de trescientos años las tierras de Ultrapuertos, conocida por tierras de vascos o Baja Navarra estuvieron integradas en el reino de Navarra.

Baxe Nafarroa formó parte del Reino de Navarra junto con la actual Comunidad Foral de Navarra (Alta Navarra) hasta 1512, fecha de la conquista por las tropas Castellanas de nuestro reino, fecha que supuso un punto de inflexión en nuestra vida nacional, fue el inicio de un proceso de separación de dos territorios que conformaron un Estado, el Reino de Navarra. Y aunque hubo dos intentos más de recuperación de la alta navarra en 1516 y en 1521, sus resultados fueron baldíos, a pesar de un inicio con gran éxito en 1521 pero que terminó en fracaso en la batalla de Noain

La Baja Navarra, que revirtió esta conquista (al ser abandonada por el emperador Carlos), permaneció con instituciones y leyes propias como parte de los dominios de la casa de Albret, asociándose al Reino de Francia al ascender su rey, Enrique III de Navarra, primero de la casa de Borbón, al trono francés. Así, los monarcas galos se intitularon "Reyes de Francia y de Navarra" y su escudo era la flor de lis y las cadenas. En 1620 el rey Luis XIII limitó los poderes de las instituciones navarras, aunque manteniendo su autonomía (así, cuando Luis XVI de Francia convocó los Estados Generales de Francia, Navarra no envió formalmente diputados a estos, sino al Rey en persona, de manera independiente y con su propio Cuaderno de agravios). Sin embargo a pesar de que en este siglo aún había bajonavarros que invocaban sus derechos, su estatus diferenciado dentro de la Corona terminó ilegítimamente con la Revolución francesa iniciada en 1789, a pesar de que en este siglo aún había bajonavarros que invocaban sus derechos.

OBJETIVO COMÚN: LA COOPERACIÓN TRANSFRONTERIZA

El objetivo de trabajar conjuntamente es reforzar la visión global de Navarra (la alta y la baja), dos territorios que durante años hemos vivido unos y otros de espaldas ajenos a una realidad histórica como fue nuestro Reino y juntos (en colaboración) con el resto de territorios de Euskal Herria.

Por todas estas razones, y aprovechando esta nueva etapa política que se ha abierto en la Comunidad Foral de Navarra con un cambio político en sus instituciones, emprendemos ambas partes esta nueva etapa de relación y de trabajo reforzando nuestros lazos y recogemos el compromiso de trabajar juntos con el apoyo y compromiso de nuestros alderdikides, en los ámbitos que consideramos prioritarios para nuestra tierra como el político, social y económico.

Aprovecharemos esta nueva etapa de trabajo que desarrollaremos en común para dinamizar nuestras propias juntas, apoyarnos y practicar el aprendizaje mutuo así como para movilizar a nuestra afiliación en beneficio de EAJ-PNV y de Navarra (la alta y la baja). Asimismo, nos esforzaremos por atraer a nuestras iniciativas a instituciones, partidos políticos y grupos económicos de nuestro país, Euskal Herria. Conocernos más, colaborar más, establecer lazos y crear proyectos conjuntos es hacer nación, es hacer Navarra y es hacer Euzkadi.

Nuestro famoso y querido poeta popular y bertsolari Xalbador, ilustra y explica perfectamente Navarra en los bertsos que dedicó a Navarra, donde afirma que no existe baja y alta parte, ya que Navarra es una sola.

*« Goizean jeiki ohetik eta non nagon eginik galde,*

*Diot : « Aurrean Baztan daukazu, gibelean Erro alde,*

*Ezkerretarat Eugi herria, eskuin alderat Luzaide ;*

*Zure guziak Naparroaren hegalen azpian daude ».*

*Ene amatxi zendu maitea Auritzberriko izanik,*

*Napartarraren odol kartsua zainetan senditzen dut nik ;*

*Eta artzaintzan Sorogain mendi zoragarrirat iganik,*

*Norbaitek « Atzar hadi » diola entzuten dut urrundanik.*

*Ene sortzeko agerietan ni naiz baxenabartarra,*

*titulu horrek lehen hitzetan galtzen du bere indarra ;*

*ni beheretar zendako deitu, nerez banaiz orotarra ?*

*Goi eta beherik ez da enetzat, Naparro bat da bakarra. »*

*10 JUNTAS MUNICIPALES DE EAJ NAFARROA*

(ALTSASU, ARANTZA, AURITZ-BURGUETE, BAZTAN,

EGUESIBAR, ETXARRI-ARANATZ, IRUÑA, LIZARRA, Y

TAFALLA, UHARTE)

*JUNTA DE BAXE NAFARROA-ZUBEROA*